AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3617

1213/2013 EBAZPENA, uztailaren 22koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Fernando Encinar Martín jauna Arabako Unibertsitate Ospitaleko Ekonomia eta Finantzako zuzendari lanpostua betetzeko izendatzeko dena.

Arabako Unibertsitate Ospitaleko Ekonomia eta Finantzako zuzendari lanpostua betetzeko deialdia 2013ko ekainaren 10eko EHAAn (110. zk.) argitaratu zen, Zuzendaritza Nagusi honen apirilaren 26ko 744/2013 Ebazpenaren bitartez.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak curriculum vitaen jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, ikusi da Fernando Encinar Martín jauna deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko prestakuntza egokia duela.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Fernando Encinar Martín jauna izendatzea Arabako Unibertsitate Ospitaleko Ekonomia eta Finantzako zuzendari.

Bigarrena.– Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 22a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.